

## Hitzaurrea

Mundu garaikidea krisi ezberdinek zeharkatuta bizi omen da (klimatikoa, ekonomikoa, soziala, generoari lotutakoak...). Ezegonkortasun honek galdera berriak zabaldu edota orain arte bigarren lerro batean kokatu direnak lehenengora eramanez, ziurgabetasun-sentsazioa areagotuz: jasangarria al da daramagun bizimodua planetaren etorkizunarekin? Non du muga ezberdintasun sozioekonomikoen hazkunde etengabe honek? Orain arte nagusi izan diren genero-erolek sexu-identitate aniztasunari bide emateko baliagarriak izaten jarraitzen dute?

Jendartearen antolaketa eta hortik eratortzen den botere politikoaren konfigurazioa ez dira ziurgabetasun-sentsazio horretatik kanpo gelditu. Azken hamarkada eta mendeetan gizarte ezberdinei gutxienezko bateratasun bat eman dieten mekanismo nagusiek ere (nazioak, hizkuntzak, kulturak...) beren mugak erakutsi dituzte, mundu geroz eta globalizatuago baten aurrean. Jendartearen kohesioa ematen dioten ziurtasun-markagailuen urratzea politikaren mundua «estres-proba» etengabe batera eramaten ari da. Presio-giro honetan politikak bere burua behin eta berriro berrasmatu eta jendartearen egituratzeko formulak behin eta berriro ekoiztu behar ditu, Ilustraziotik hona nagusitu diren demokrazia liberalen josturen urratzea begibistakoa egiten ari delarik.

Paul Ricoeur (1965) filosofo frantsesak behin esan zuen bezala, politika «bakarrik momentu handietan existitzen da, “krisietan”, historiaren puntu gorenean eta erabakigarrietan». Varsoviako Paktuko tropek Hungaria inbaditu berri zuten, gerora, ezkerrean (eta ezkerretik ez zirenen) iruditerian erabakigarriak izango zirenen aldaketei bide emanez. Ricoeurren definizio horrek zerikusitako gutxi izango du, gaur egun, «politikaz» hitz egiten dugunean, buruan izan dezakegun ideiarekin. Mitinak, sondeoak, gobernu-osaketak, hauteskundeak, beste hauteskunde batzuk, eta berriro hauteskundeak.

Ustezko gai berberaren gaineko bi adiera hauek, azken urteotan postfundazionalismo bezala ezaguna egin den korranteak *politikoaz* eta *politikaz* egin duen bereizketara garamatzate. Lehenengoak jendartearen une fundatzaileari erreferentzia egingo lioke; ordura arte ezarritako zegoen ordena edo logika apurta eta mundu-ikuskeraren berri bat ezartzen duen horri; momentu batera arte normalizatzen hartzen zena zaharkitzea eta erabilgarritasun eza agerian utzi eta esparru sozialaren berrantolaketa eskatuko duena. *Politikak*, aldiz, momentu horren egonkortze eta sedimentazioari; une zehatz batean disruptibo den denboran zehar pausatzeke

egiten duen ibilbideari. Teknikak, teknologiak eta teknokraziak egungo politika zeharkatu duten honetan, lan honek jatorrizko une horri arreta jarri nahi dio. Ez politika garaikidearen laidotzea bezala, baizik eta hori bera zer oinarriren gainean eraikitzen den ulertzeari begira. Horretarako *Herriak Jendarte* bihurtzen diren *une* (edo prozesu) horretan parte hartzen duten aldagaiei erreparatuko zaie.

Alde horretatik, teoria politikoaren esparrutik antolaketa sozialaren eta botere politikoaren afera hauei nola heldu zaien, edota hobeto esanda, nola heltzen ari zaien, aztertu nahi izan dugu. Epistemologia konstruktibistari jarraituz, esaterako, ikuskera bateratuak talde sozial ezberdinen bateratasunerako oinarritzko aldagaiak lirateke, talde txikienetatik hasi eta zabalenera; lagun kuadrillatik, nazio handienetara. Ikuskera batzuk zorrotzagoak izango dira, beste batzuk malguagoak; batzuek erabateko fideltasuna eskatuko dute eta beste batzuek, aldiz, gai zehatzen inguruko oinarritzko antzeko ikuskera. Ikuspegi horiek konpartitzen dituzten gizabanakoen artean identifikazio komunak sortuko dira, jendartearen antolaketaren oinarritzko ezaugarri bezala. Identifikazio bat zenbat eta zabalagoa eta estuagoa izan, orduan eta boteretsuagoa izango da. Eta hor Zientzia Politikoen jarduna jokoan sartuko da. Boterea, bere ikerketa-gai kuttun bezala, identifikazio horien artikulazioaren arragoan hezuramituko litzatekeen heinean. Diziiplina horretan erreferentzialtasun handia hartu duen kategoria batetik begiratuko diogu eztabaida honi: hegemoniaren eraikuntzaren ikuspegitik, hain zuzen. Begirada hau diskurtsiboa izango da ezinbestez, jendarteei bateratasuna ematen dieten mundu-ikuskera kolektiboak diskurtso bidez (bere zentzu zabalenean) eraikitzen direlako ustetik abiatuta.

Zentzu horretan, ezin izango diogu ihes egin azken boladan askoren ahotan dabilen iraindutako populismoaren aferari. Gaiaren inguruan aurki dezakegun bibliografia gehienean ez bezala (lubakiaren aldeko ala kontrako aldean tokia hartzeko oso erabilgarria), populismoa hegemoniaren eraikuntzarako bide bezala aztertzen saiatuko gara; momentu batera arte indarrean zen ordena zalantzan jarriko duena, logika berri baten aldarria zabalduz. Antzinako Erroman bezala, plebeioek patrizioen aurrean beren burua jendarte (*Populus Romanus*) aldarrikatu zutenean, ordena sozial berri bati ateak irekiz. Izan ere, balorazio moraletatik harago, hori izan baitaiteke populismoaren funtsa: jendartearen osotasuna (*populus*) aldarrikatzen duen sektore sozialaren (*plebs*) artikulazioa; *Herria Jendarte* bilakatzea, hain zuzen.

Ikuspegi hau barne-adiskidetutako jendartearen ikuspegitik edo adostasunezko joeretatik urruti egongo da ezinbestez. Antolaketa soziala prozesu lehiatsua izango da, sektore ezberdinek beren burua jendarte osoaren ordezkarietat aldarrikatuko duten heinean. Sektore horien arteko norgehiagokan kokatuko da jendartearen izaera gatazkatsuen funtsa, eta, ondorioz, boterearen inguruko bataila. Izan ere, jendartearen osotasunaren interesen ordezkari agertzea lortzen duena nagusi izango baita. Ikuspegi horri joera baikorretik heldu nahi dio lan honek. Izan ere, jendartearen antolaketarako garai bateko esentziek (Erregeak, Jainkoak, Naturak...) utzitako hutsune hori betetzeko lehian egituratzen baitira egun jendarteak. Eta alde

horretatik, irekia eta aurrez determinatu gabeko prozesu bezala ulertzen dugu gaur egun.

Nortasunak botere politikoaren kriseilutzat hartuta, identifikazioen eraikuntzan zer prozesuk parte hartzen duten ulertzen hasteko, lehen kapituluan klasikotzat har dezakegun eredu batera joko dugu: marxismora, hain zuzen. Izan ere, langileriaren bateratzea teoria marxistaren eginkizun nagusietakoa izan baita hamarkadetan zehar. Karl Kautskyren *ortodoxia*, Rosa Luxemburgen *bat-batekotasuna* edota George Sorelen *grebaren mitoa*, esaterako, barne-adiskidetutako subjektu horren nortasuna artikulatzeko saiakerak izan ziren, denborak aurrera egin ahala horien «nahi eta ezinetako» batzuk bistan gelditzen joan zirelarik. Horien oinarrian ekonomizismoaren rol deterministek proletariotzari egotzitako *berezko* izaera aurkienezake, modernitateak identitateen aniztasuna eta bere konplexutasuna indartu zuen bitartean.

Identifikazioen eraikuntzan aldagai ekonomikoari emandako pisuaren aurrean, Gramsciren pentsamendua azalduko zaigu, ezkerretik lehen alternatiba bat eskaini zuen heinean. Berak ezagutu zuen bi mundu-gerren arteko Italia ezintasun horien erakusle izan zen. Nazio-kontzientzia bakarraren gainean, iparralde industrializatuaren errealitateak ez baitzuen nekazari-giroko hegoaldeko nortasunarekin zerikusi askorik. Gai hori maisuki landu zuen 1920an idatzitako *La questione meridionale* lanean, bertan mundu-ikuskera ezberdinen izaera eraikia eta kulturala nabarmenduz. Alde horretatik, Gramsci bere garairako aurreratu bat izan zela esan dezakegu, gerora prozesu sozialen azterketan indarra hartzen joan ziren lengoaiaren edota identifikazioen lanketan egindako lanagatik. Baina gerora Ernesto Laclauk leporatu bezala, ezin izan zuen bere «azken gune esentzialista» alde batera utzi, bere pentsamenduan ere, aldagai ekonomikoak azken hitza zuen heinean.

XX. mendearen bigarren erdialdean, postestrukturalismoaren eskutik, jakintza-eremu ezberdinetan hasitako paradigma-aldaketak ezinbestekoak izango ziren nortasunen eraikuntza-prozesuen ulermenean errotiko aldaketa eman ahal izateko. Bigarren kapituluan horien gaineko hurbilpen bat egiten saiatuko gara. Modernitate berantiarraren inguruko eztabaida egun oraindik zabalik badago ere, pentsamendu estrukturalistaren ondorengo artean kontsentsu zabala aurki dezakegu, postmodernismoak aurreko fasea ezaugarritu zuen ziurtasunen gainbehera ekarri zuela esatean (Lefort, 1998; Mouffe, 2000; ...). Garai horretako gertakari historikoek (I. eta II. Mundu Gerra, nazismoaren edo estalinismoaren gehiegikerien azalarazteak...) arrakala asko ireki zizkieten ordura arte nagusi zen mundu-ikuskera baikor eta eboluzionistari, hainbaten ustez bere iraungitze-data azaleratuz. Mundu eta prozesu sozialak ulertzeko modelo eta ikuskera berrien beharra agerikoa zen. Zentzu horretan, aurrez determinatutako funts eratzaille baten inguruan ondo artikulatutako estruktura sozial, politiko, kultural eta abarren paradigma deseraikitze ahalegina da postestrukturalismoarena.

Era horretan, bi multzotan bereiz dezakegu aro horretatik aletzen saiatuko garen ekarpen teorikoa: batetik, *eskola alemaniarrek* utzitako abiapuntua eta bestetik *eskola frantziarrak* emandakoa. Lehenengoari dagokionez, XX. mendearen bigarren erdialdean klasikotzat har ditzakegun hainbat autore alemaniarrek (Nietzsche, Heidegger, Freud...) izandako biziberritzea aipatu beharko genuke, Mendebaldeko pentsamenduaren izaera metafisiko eta arrazionalistan deseraikuntzan jokatutako paperagatik. *Eskola frantziarrari* dagokionez, ordea, haren ekarpena jakintza-eremu oso ezberdinetara zabaldu bazen ere, gure ikerketa-lerrotik ez aldentzeko, bi nabarmenduko ditugu: batetik, linguistikaren eremuan, mende-hasieran Ferdinand Saussurek eta gerora Roland Barthesek egindakoa; eta bestetik, psikoanalisian Jacques Lacanek garatutakoa. Postmodernitatean nagusitzen hasitako diziplina-artekotasuna ezinbestekoa izango da, ondoren jakintza-eremu hauek teoria politikoaren garapenean izan zuten eragina ulertzeko.

Postestrukturalismoaren eskutik emandako aldaketa epistemologiko hauek Gramscik landutako hegemoniaren adiera klasikoaren eta Laclaren adiera garaikidearen arteko bereizketa egiteko oinarria jarriko digute. Genealogia-lan hori eginda, bigarren horren azalpenari helduko diogu hirugarren kapituluaren hasieran. Hegemoniaren eraikuntza prozesu diskurtsibo bezala, jendarte batean nagusi izango den ustea edo mundu-ikuskeraz bezala definienez; «normaltzat» hartzen den hori. Alde horretatik, identifikazio kolektiboaren eraikuntza horretan parte hartzen duten elementu nagusien azalpena jasotzea izango da gure helburua. Kapitulu honen bigarren partean, berriz, hainbatetan deitoratutako populismoaren kontzeptuaren azterketan murgilduko gara, jendarte batean nagusituko den sen on edo zentzu komunaren eraikuntzarako bide gisa ulertuta. Hainbat autorek egotzitako irrazionaltasuna eta anbiguotasuna direla medio, iraindutako kategoria izatetik, gabezia bertute eginez, Laclau kontzeptu honetaz egiten duen birformulazioa azalduko dugu. Azkar ohartuko garen bezala, bi kontzeptuen arteko lotura agerikoa izango da, pentsamendu laclauarraren osotasunaren isla (Rivera, 2015). Horrek demokraziaren eta populismoaren arteko harreman tentsiodunaren eztabaidara eramango gaitu hirugarren kapituluaren bukaeran. Ika-mika horrek galdera berriak zabaldu dizkigu, sistema demokratikoen izaera bera zalantzan jartzeraino: populismoa demokrazien berezko fenomeno da ala hortik kanpo kokatzen da? Horrek mekanismo demokratiko batzuk areagotzen baditu (mobilizazioa, parte-hartzea...), baina beste batzuk zalantzan jarritz, demokrazia bera indartu edo ahuldu egiten du? Sistema demokratikoak kolokan jartzen baditu, non dago beren burua babesteko jarri beharreko muga?

Baina hegemonia ez genuke gehiengoak sortzeko edo uste zehatz bat nagusitzeko tresna *soiltzat* hartu behar. Alde horretatik, hegemoniak ez du izaera neutroa izango. Hori ez da behintzat landuko dugun ikuspegia. Hegemoniari izaera normatiboa emango liokeen hautu politikoaren azalpenean zentratuko gara laugarren kapituluaren demokraziaren erradikalizazioan, hain zuzen.

Ilustrazioaren eskutik emandako mundu-ikuskeraren aldaketak demokrazia modernoaren garapenari oinarria jarri zion. Jendarte-antolaketan, XVIII. mendera arte Erregeak betetako botere absolutuaren irudia Frantziako Iraultzatik aurrera erortzen joan zen, berak utzitako tokia *Herriaren* kategoriak bereganatuz. Baina *Herriaren* artikulazioa ez denez *a priori* definitua egongo den elementu baten inguruan emango, *demos*-a eraiki beharko da. Zentzu horretan, *demos*-aren eraikuntza demokraziaren lehen mailako eginkizuna izango da. Prozesu hori demokratikoa izango da eskaera edo sektore ezberdinak barnebiltzera jotzen duen heinean. Edo beste modu batera esanda: jendartea zer eskaeraren inguruan egituratuko den ebazteko *askatasuna* eta eskaera ezberdinen arteko aukera-*berdintasuna* izango dira prozesu demokratikoaren bermeak. Eskaera horien arteko berdintasuna, aldiz, ezin izango dugu beraien arteko homogeneousutasuna bezala ulertu. Eskaera guztiek ez dutelako indar edo garrantzi bera izango eta, alde horretatik, aseak izateko aukera ezberdinak izango dituztelako. Era berean, sistema demokratikoen ezegonkortasunak eta kontingentziak eskaera horien arteko aniztasunari eta beraien arteko lehiari ere bide eman beharko diete. Hortik, askatasunaren garrantzia.

*Berdintasuna* eta *askatasuna* azken mendeetako bi korrante demokratiko nagusien abiapuntu izan dira: *liberalismo*arena askatasunaren kasuan; *errepublikanismo*arena berdintasunarenean. Zentzu horretan, sistema demokratikoak, bere forma ezberdinetan, bi ardatz hauen artean kokatuko direla esan dezakegu: batetik, askatasun liberalak nagusitzen dituen eskubide indibidualen eta, bestetik, berdintasun demokratikoak lehenesten duen ongizate komunaren artean. Moufferen ustez, aldiz, joera batzuek zein besteek gabezia bera adieraziko dute. Komunitate politiko bati kohesioa eman behar dioten funtsak zehazteko orduan interes ezberdinen artean sortzen diren gatazkak arrazoiaren bitartez desagerrarazten saiatzearena, hain zuzen ere. Gabezia horrek modernitatearen krisiarekin eta aro postmodernoaren etorrerarekin lotura zuzena izango luke. Izan ere, Ilustrazioaren eskutik nagusitutako arrazionalismoak talka egingo baitu Lefortek (1998) aipatzen zuen sistema demokratiko garaikideen indeterminazioarekin edo «ziurtasun-adierazlearen disoluzioarekin».

Muga horiek gainditzeko asmoz, Carl Schmittek *politikoaz* duen adierara joko dugu. Horrek jada ez du interes ezberdinen arteko gatazka errefusatuko; are gehiago, interes ezberdinen arteko gatazka jendartearen funts egituratzailatzat hartuko du. Ikuspegi hori muturrera eramanez, interes horiek antagonikoak eta adostezinak bihurtuko dira, ordea. *Erabakiaren* logikaren gainean eraikitako adiera honek atea irekiko dizkio sistema demokratikoen ulermen berri bati, non *bateratasunak*, *lagun/etsai* logika antagonikoak edota *indarraren* ideiak garrantzia hartuko duten komunitate politikoaren eraikuntzan. Joera dezisionista eta autoritario horiek, XX. mendearen bigarren erdialde osoan zehar sistema demokratikoen izaera kontsentsuzalea eta eztabaidaren aldekoa azpimarratuko duten erreakzioak sortu dituzte. Ziur aski Anthony Giddens-en «Hirugarren Bidea» bere formarik ezagunena izango litzateke, berriro ere jendartearen izaera gatazkatsua zalantzan jarritz. Batzuen muturreko

tentaldi antagonistak leundu eta besteen adostasun arrazionalerako gehiegizko joerak ekiditeko, Chantal Mouffek proposaturiko eredu *agonistan* zentratuko gara, demokraziaren erradikalizaziorako oinarritzko abiapuntutzat hartuta.

Lan honen azken atalera iritsita, ezin aipatu gabe utzi hegemoniaren teoriak izango lituzkeen gabeziak edo ahulguneak. Horretarako, azken kapituluan, modu batean edo bestean Laclairen lana erreferentziatzat hartu duten hainbat autoreren kritiketara joko dugu. Kasu askotan, horietako batzuen eta Laclairen arteko ika-mikek ezkerren baitako eztabaida garaikideen posizio esanguratsuenak ordezkatu dituzte: eztabaida ekonomikoa lehen lerrotik aldendu izanak ez al du ahultzen bilatzen den eragin eraldatzailea? Hegemoniak egungo demokrazia liberalei benetako alternatiba bat eskaintzen die ala botere politiko-instituzionala eskuratzeko bide posible bat baino ez al du marrazten? Zer gertatzen da ulermen hegemoniko horretatik kanpo gelditzen diren sektoreekin? Teoria populista eta hegemonista hauetan oinarritu diren hainbat esperientziaren gainbeherak (ezkerreko populismoena Latinoamerikan, esaterako) ez al du paradigma honen amaieraren ortzemuga marrazten?

Alde horretatik, lan honek izaera teorikoa badu ere, haren aldaera praktikoa ere nabarmendu nahiko genuke, egun mahai gainean ditugun hainbat eztabaidari beste ikuspegi batetik heltzeko balio dezakeen neurrian. Akademiak funtzio sozialik badu, jendartean presente dauden eztabaidagai eta aferei heltzeko tresnak eskaintzeko izango baita, jendartean gertatzen ari diren aldaketen aurrean errealitatea interpretatzeko betaurreko egokiak izate aldera. Izan ere, hitzurre honen hasieran aipatutako krisiak tarteko, politikagintzaren inguruko kezka edo jakin-min berri bat zabaldu delako ustetik ere abiatzen baikara, hainbatetan bera egungo politika konbentzionalarekiko gogaitasun batetik jaio bada ere. Irakurlea azkar jabetu den bezala, aldiz, eguneroko *politikaren* «konbentzionalismo» horietatik apur bat aldendu nahi izan dugu, momentu batera arte indarrean egon den mundu-ikuskerak balioa galdu eta berri baten beharra agerikoa egiten den une *politikoan* arreta jarritz; edo Gramscik aipatuko lukeen «mundu zaharra hil ez eta berria oraindik jaio ez den argilun horietan». Funtsean, herriak Jendarte egiten dituzten une eta prozesuetan.

# 1. kapitulua:

## BOTEREA ETA NORTASUNA: DETERMINISMOAREN KRISITIK HEGEMONIAREN ALTERNATIBARA

Sarreran esan dugun bezala lan honek, besteak beste, identitate politikoaren eraikuntza-prozesuaz dihardu; hegemoniaren bidez egikaritzen den eraikuntza-prozesuaz, hain zuzen. Zentzu horretan, hegemoniaren kategoriaren bi adiera ezberdinduko ditugu: batetik, hegemoniaren adiera gramsciarra edo *klasikoa*, eta, bestetik, hegemonia laclauarra edo *garaikidea* deitu nahi izan ditugunak. Bigarrenak lehenengotik edango du ezinbestean, baina bata eta bestea bereizten dituen muga deskribatzea lan honen eginkizunetako bat izango da. Lehen kapitulu honetan, bigarren adiera horretara iristeko egindako ibilbide intelektualaren urrats nagusiak arakatu nahi izango ditugu. Gramscik XX. mendearen hasieran jorratzen hasitako bidetik, Laclauk eta Mouffek gerora borobildu nahi izan zutena behar bezala azaltzeko.

Kapitulu honen hasierako partean, II. Internazionaletik aurrera marxismoak artikulatu nahi izan zuen identitate politikoarengan arreta jarriko dugu; proletariotzarengan, hain zuzen. Batez ere, bere artikulazioa gauzatzeko orduan agertutako zailtasunei aurre egiteko intelektualki planteatutako irtenbideengan. Beste eredu batzuk mahaigaineratu genitzakeen, baina identitateen artikulazioan parte hartzen duten oinarritzko aldagaiak azaltzeko marxismoak erakutsitako indargune eta, batez ere, ahulguneek oinarri egokia eskaintzen digutelakoan gaude. Kapituluaren sarrera honetan azterketa sakonetan murgildu gabe, zailtasun edo krisi honen muina garapen teknologiko-industrialaren eta, oro har, ekonomiak determinatutako Historiaren bilakaeraren ondorioz eman beharko zatekeen langileriaren nagusitasunaren aurreikuspena ez gauzatzean kokatua izan da. Distortsio horren aurrean jarraian azaltzen joango garen erantzunak mahaigaineratzen joan ziren. Planteamendu horietako bakoitzak izan zuen eraginkortasunaren azterketatik harago, horien bilakaeran jarri nahi dugu arreta. Batez ere, identifikazio politikoaren eraikuntzarako «azpiegituretik gainegiturara» egin beharko litzatekeen itzulpen automatikoaren logika ortodoxoan izandako bilakaeran. Hau da, azpiegiturek determinatutako lukeen errealitate ekonomikotik gainegitura politiko, sozial edo

kulturalera emango litzatekeen transferentzia zuzenaren ideian gertatzen hasi zen malgutzean.

Identitate politikoen «heterodoxizatzeko-prozesu» honetan arretagunea Gramscirengan kokatu beharko dugu ezinbestean. Bere pentsamendua aurreko hamarkadetako pentsalari marxisten bilakaerari erreparatu gabe nekez uler badaiteke ere, subjektu politikoen konfiguraziorako mugari berria jarri zuela esan dezakegu. Ekonomikoaren pisua bazterrean utzi gabe, baina bere aurrekoek planteatutakoaren kontra, Gramsciren ustez, emantzipaziorako subjektuak *eraikia* beharko luke. Izaera *eraiki* horrek ordura arte marxismoak bigarren maila batean utzitako dimentsio kultural eta performatiboari garrantzia eman zion. Izan ere, XX. mendearen hasieran kapitalismoaren eskutik herrialde industrializatueta hasitako heterogeneizazio sozialak ordura arte nagusitutako hainbat kategoriatara berrikustera behartu zuen; errealitate aniztun hori ulertzeko baliagarriak izango ziren kategoriak asmatuz edo, behinik behin, zaharberituz. Bilakaera ekonomiko hutsaren ondorioz nagusituko litzatekeen subjektuaren (proletariotzaren) izaera aurre-determinatuaren eskemaren mugak bistan gelditzen hasiak ziren. Zentzu horretan, Gramscik *ekonomikoaren* eta *politikoaren* arteko lehiari izaera «fundatzailea» eman ziola esan dezakegu, identitate politikoa nola eraikitzen diren inguruko eztabaidari ateak zabaldu zizkion heinean.



# 1. Krisi baten genealogia

## ***1.1. EREDU BAT: MARXISMOAREN DETERMINISMOA***

Arestian aipatutako korapilo teorikoak II. Internazionaletik aurrera pilatzen eta trinkotzen joan ziren marxismoaren baitan, iraultza komunisten arrakasta mugatuen aurrean; batez ere Mendebaldeko herrialde industrializatuenetan. Korapilo horiek askatzen saiatzeko zenbait erantzun teoriko mahai gainean jarri ziren mende osoan zehar, ortodoxoenetik kulturalistenetara.

Karl Kautsky lehen joera zurrun horren adierazle nabarmenenetakotzat har dezakegu. Prozesu sozialen bilakaera azpiegitura ekonomikotik gainegiturara emango litzatekeen itzulpen zuzenaren luzapen uler dezakegu bere pentsamenduen funtsa. Kautskyren kasuan, proletariotzak bere nortasunaz hartu beharko lukeen kontzientzia jarri zuen arreta nagusia; azpiegiturak determinatutakoa, hain zuzen. Bere ustez, langile bakoitzaren eskaera ekonomikoen partzialtasunak kontzientzia kolektibo hori sortzea oztopatuko luke, eginkizun horretarako sindikalgintzaren arrakasta mugatua agerian geldituz. Traba hori eragotzi eta botere politikoa eskuratzeko langileriak alderdi politikoak garatu behar duen teoria sozialista aintzat hartu beharko luke.

Consideremos por ejemplo los sindicatos. Son uniones profesionales que buscan defender los intereses inmediatos de sus miembros. Pero ¿cómo de divergentes son los intereses de cada una de las profesiones tomadas por separado: gentes de mar y carboneros, chóferes y tipógrafos! Sin teoría socialista no pueden conocer sus intereses comunes y las diferentes capas del proletariado se consideran mutuamente como extrañas, incluso como enemigas (Kautsky, 1969: 15).

Proletarioak, alderdiaren bitartez bere eginkizun historikoaren kontzientzia hartuta, bere inguruan bildu beharko liriateke botere politikoa eskuratzeko. Labur esanda, *benetako kontzientzia-hartze* prozesuaren ondorioz, bilakaera ekonomikoak berak prozesu hau *halabeharrezko* egingo luke, beste inongo mekanismoren parte-hartzerik gabe.

Jendartearen estruktura hau mekanizista izateaz gain, azpimarragarriagoa den bigarren gabezia bat izango luke: identitate bakoitzaren izaera finkoa eta mugiezina bezala ulertzea, hain zuzen (Laclau&Mouffe, 2004: 41). Kautskyren ustez giza sektore bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan egitura ekonomikoa elementu determinatzailea litzateke; are gehiago, dimentsio ontologikoa edo eratzailea luke. Zentzu horretan, jendarte multzo ezberdinek aurrez beren borondatek kanpo

legokeen gako baten arabera definituko lukete beste jendarte-sektoreekin izango dituzten harremanen izaera, joko politiko eta sozial posiblearen eremua nabarmen mugatuz edota baldintzatuz.

Rosa Luxemburgek ulermen itxi honetan lehenengo pitzadura batzuk agerian utziko zituzten hainbat ekarpen mahaigaineratu zituen. Horrek bere garaiko jendartearen bilakaera beste modu batera irudikatzen zuen. Ordura arteko teoria marxistak aurreikusten zuenaren kontra, Alemania bezalako herrialde industrializatuen antolaketa soziala geroz eta zatikatuago zegoen. Luxemburgek, Kautskyk bezala, jendartearen bateratze-prozesuaren beharra ikusten zuen, baina bere ustez langileen eskaera partikularrek ez lukete muga bat zertan suposatu. Izan ere, horiek beren espezifikotasuna galduko lukete iraultzak bermatu beharko lukeen hobe behar komun baten mesedetan (*Reforma o revolución*, 1900). Hori bai, Luxemburgek iraultzaren subjektua langileria izango zela ez zuen zalantzan jarriko, kapitalismoak bere baitan zituen kontraesanen bilakaera naturalaren ondorioz aipatutako klasea *berez* nagusituko litzatekeelarik.

Alde horretatik, Luxemburgi aitortu behar zaio ordura arteko pentsamendu marxistan kapitalismoaren eskutik garatutako heterogeneizazio sozialaren aitortza, baina horri lotuak dauden hainbat gabezia ezin ezkutatu. Horietako lehenengoa bat-bateko prozesu iraultzaile horiek noiz edota zer testuinguru sozialetan gertatuko diren ezin zehaztea. Izan ere, ezin dugu ahaztu horrelako prozesu iraultzaileen garaiko erreferentea zen Errusiak garapen kapitalista oso mugatua zuela. Bertan nekazari-giroa nagusi zen, proletariotzaren garapena oraindik oso apala izanik. Baina lan honetarako interesgarriagoa izan daitekeen eta aurreko horri lotutako bigarren gabezia bat nabarmendu dezakegu. Izan ere, kapitalismoaren eskutik ematen zen (eta ematen ari den) jendartearen errealitate soziala geroz eta aniztunagoa bazen, nola lortu prozesu iraultzaile horien subjektu nagusi izan behar duen langileriaren batasuna? Laclau eta Moufferen arabera (2004: 35), Luxemburgen teoria espontaneistak iraultzak noiz/nola gertatuko diren ezin aurreikusteaz gain, subjektuaren osaketa-prozesuaren izaera konplexua agerian utziko luke, ordura arte honen eraikuntzan nagusi izan zen ikuspegi deterministan aldaketa esanguratsu bat txertatuz.

Zentzu horretan, Kautskyren *beharrezkotasunaren* eta Rosa Luxemburgeren *bat-batekotasun teoriaren* arteko dilema, krisian zegoen paradigma baten lehenengo agerlekutzat har daiteke. Izan ere, baten beharrezkotasunak bestearen aurreikus-ezintasuna indargabetuko bailuke (eta alderantziz), eta eredu hau *zero batura* lukeen ikuspegi ekonomizistaren eta erredukzionistaren arteko emaitza bihurtuko (Laclau&Mouffe, 2004: 39).

## 1.2. IKUSPEGI TRADIZIONALETIK EMANDAKO HIRU ERANTZUN

XIX. mendetik XX. menderako aldaketa horretan, krisi honi eman nahi izan zitzaizkion erantzunen artean hiru nabarmendu zituzten pentsalari argentinarrek eta belgikarrek. Lehenengoa *ortodoxia marxista* litzateke. Kautskyren pentsamenduan urrats bat aurrera eginez, jada teorialarien funtzioa ez litzateke funts ekonomikoak determinatua dagoen joera historikoen azterketa egitea, baizik eta lehentasunezko subjektu horren artikulazioa zer gertakari historikoren eskutik etorriko litzatekeen aurreikustea; betiere, emaitza zientzia marxistaren arauk ziurtatuko luketelarik (Kautsky, 1969).

Ikuspegi ortodoxo honek nortasunen eraikuntzaren eremua politikoa izango dela aitortzen badu ere (*gainegituran* azalaraziko litzatekeena), aurrez *azpiegituran* determinatutako interesen posizioa baino ez luke ordezkatu, nortasun sozialen eraikuntzaren harremanezko joko politikoa indargabetuz. Zentzu horretan, *teoria sozialistaren* eginkizun nagusia, *jada emanda* leudekeen baldintza batzuen gainean<sup>1</sup>, gertakari historiko zehatzei logika orokor horretan lekua aurkitzea litzateke. Georgi Plejanov-ek, esaterako, *Socialismo y lucha política* (1883) eta *Nuestras diferencias* (1855) lanetan prozesu iraultzaileak gainditzen joan beharreko etapen kronologia zehatz bat definitu zuen, eta hortik kanpo gelditzen ziren gertaerak «kontingenteak liratekeen itxurazko formak» baino ez lirateke.

Marxismoaren krisi honi emandako bigarren erantzun nagusi bat *errebeisionismoa* litzateke. Korrante honen baitan, Eduard Bernsteinek ordura arteko pentsamendu marxistari hainbat ekarpen egin zizkion, besteak beste, plusbalioaren teoriaren inguruko gehiegizko sinplifikazioa, bortxa bidezko boterearen eskuratzea edota langileriaren lorpen partzialen aldeko ikuspegi «*gradualista*»<sup>2</sup>. Baina landu nahi dugun ikuspegi teorikorako batez ere baliagarria izango zaiguna, Historiaren ikuspegi determinatu gabea gailentzeko saiakera izango da. Bernsteinen arabera, Historiaren bilakaeran ez dute soilik indar ekonomikoek parte hartuko. Garai horretan gertatzen ari zen klase ertainaren zabalpenak, jendartearen polarizazio mugatuak edota errebolta iraultzaile baterako aukeren ahultzeak, langileriaren funtzio historikoaren eta bere artikulazioaren gaineko ikuspegiaren aldaketa ekarri zuten (*Las premisas del socialismo y las tareas de la socialdemocracia, 1899*). Horrela, langileriaren lehentasunezko izaera, Historiaren izaera determinatutik

1. Aipa dezagun 1907an Kautskyk Parisen egindako konferentzia batean, aurreko mendeko gertakari historiko nagusien azaleko errebasoaren ostean, formulatutako baieztapena: «Actualmente y bajo todas las relaciones, las condiciones de la unión tan necesaria del movimiento obrero y del socialismo están cumplidas. Faltaban en los primeros lustros del siglo XIX» (1969: 16).

2. Zentzu horretan Laclauk eta Mouffek errebeisionismoaren eta erreformismoaren arteko ezberdintasuna nabarmendu nahi izango dute; nagusiki, erreformismoak planteatzen duen langile-klasearen «bere baitako biltzearekin» eta horrek lekarkeen «geldotasun politikoarekin» ezberdinduz. Horrela, erreformismoak langileria gainontzeko sektore sozialetatik «bereizita» dagoen multzoa bezala ulertzen duen bitartean, errebeisionismoak azpiegiturekiko «autonomoa izango den parte-hartze politikoaren» alde egingo du (2004: 61).

baino gehiago, haren eraikuntza historiko kontingente baten eskutik letorke. Esan nahi baita, une historiko zehatz batean bere aukerak behar bezala jokatuz erakutsi beharko lukeen gaitasunagatik.

Ikuspegi horrek, aldagai ekonomikoaren garrantzitik harago, maila ezberdinetako inplikazioak lituzke: egokia izango den sektore ezberdinen arteko indar-korrelazio baten artikulazioaren beharretik hasita, ordura arte nagusitu zen proletariotzaren «*garaipen* ekidinezinaren» ideia zalantzan jartzeraino. Eremu sozial ezberdinen artikulazioaren afera honek langile-klasetik *kanpo* leudekeen sektoreekiko hartu-emanaren eztabaida indartu zuen marxismoaren barruan. Baina Laclau eta Moufferen (2004: 68) ustez, errebisionismoak ez zuen lortu «alde z aurretik definitutako eskema bateratzailearen» ideia erabat gaintzea, eta jatorrizko korapiloak askatu gabe jarraitu zuen.

Krisi honen balizko hirugarren aterabidea George Sorel-en *greba orokorraren mitoaren* eskutik letorke. Horren arabera, jendartea ('melange') ez litzateke arestian aipatutako «azpi/gain» egitura dualaren arabera antolatuta egongo. Jendartean existitu daitekeen bateratasuna, giza sektore batzuek ('*bloc*') «ekonomiaren antolaketaren beren ustea *inposatu*» nahi izatearekin lotuta legoke, ez berez ekonomiak finkatzen duen antolaketa sozial batekin. Jendartearen antolaketari dagokionez, konplexutasun honek bilakaera historikoaren ustezko izaera determinatuan zirrikitu berri bat irekiko zuen. Baina garrantzitsuagoa dena, eraldaketarako subjektuaren artikulazioaren funtsa ez du oinarri ekonomiko objektibo batean kokatuko, gaitasun moral edota borondate nietzschear moduko batean baizik (Sorel, 1978). Ekintzaren filosofia izango da Sorelek planteatuko duena, greba orokorrak horretarako funtzioa beteko luke.

Por ese motivo [konplexutasun sozialagatik], según Sorel, era necesario mantener la pureza del proletariado por medios artificiales: el *mito de la huelga general* tenía como principal función proteger la identidad separada de la clase trabajadora. Mientras esta creciente complejidad social llevó a Gramsci a afirmar la necesidad de extender el momento de mediación política, llevó a Sorel a un repudio total de la política. Tanto para Marx como para Sorel, la verdadera emancipación significaba una sociedad plenamente reconciliada, pero mientras para Marx era la emancipación era el resultado de las leyes objetivas del desarrollo capitalista, para Sorel iba a ser la consecuencia de una intervención autónoma de la voluntad (Laclau, 2003: 57).

Eraiki nahi dugun hegemoniaren ideiarako Sorelek txertatutako borondatearen dimentsioa baliagarria izango bazaigu ere, muga bilakatuko litzatekeen gaitza ere badarama bere baitan. Izan ere, *mitoaren* adiera sinbolikoak ikuspegi ekonomikoak planteatutako errealitate objektiboa gaintzeko oinarri teorikoa jartzen bazuen ere, subjektuen barne-homogeneotasuna eta itxitura berriro gailenduko litzateke.

Marxismoaren kontraesan teorikoek gora egiten jarraitu zuten XX. mendearen lehen hamarkadetan. Proletarizazio-maila altuenak zituzten herrialdeetan (Alemania, Britainia Handia...) saiakera iraultzaileek porrot egiten zuten bitartean,

itxuraz horretarako baldintza eskasagoak zituztenetan (nekazari-giroko Errusian lehenengo, eta Txinan gerora) oinarri marxistako iraultzak arrakasta lortzen ari ziren. Erantzun intelektual nagusiak, oro har, kasuan kasuko arrakasta edo porrota azaltzeko teoriak eraikitza mugatu ziren. Urteek aurrera egin ahala teoriaren eta praktikaren arteko lubakia handituz joan zen, bilakaera historikoaren azalpen zientifiko baterako aukerak ahulduz. Arestian aipatutako azken erantzunak, langileriaren nortasun sozialaren izaera determinatuaren karga arintzen ahalegindu ziren, baina guztiek proletariotzaren lehentasunezko izaeraren hormarekin topo egin zuten, horrek garaiko prozesu politikoak ulertzeko muga nabarmena eragin zuelarik. Kautskyren ortodoxia marxistatik Sorelen grebaren mitora langileriaren nortasun eraketaren *berezkotasunaren* dimentsioa apaltzen bada ere, guztiek nortasun horren lehentasunezko izaera mantendu zuten, objektibotasun esentzial bat bezala proiektatuz. Egokitzapenak egokitzapen, jendarte-gatazken analisirako ikuspegi berri bat zabaltzea zaildu zuen.

